

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

272

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 19koa, Babes Zibileko sailburuordearena, irabazi-asmorik gabeko hainbat elkarteri joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematen dizkiena.

Segurtasuneko sailburuaren 2024ko uztailaren 11ko Aginduak arautzen du joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko Euskadiko irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea (2024ko uztailaren 23ko EHAA, 144. zk.).

Agindu horren oinarriekin bat etorriz, eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Balorazio Batzordearen txostena ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean aipatzen diren eskatzaileei bertan zehazten diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako erakunde eskatzaileei laguntzak ukatzea, eta eranskin horretan ukatze horren arrazoiak zehaztea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau erakunde interesdun guztiei jakinaraztea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 19a.

Babes Zibileko sailburuordea,
JOANA EGILUZ IBARGUEN.

I. ERANSKINA

ESKAERAREN, PUNTUEN ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Onuraduna	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
ASAJER	72	12.093,08
FEDEAFES	63	4.045,85
Kiribil Sarea	61	9.040,17
Etorkintza Fundazioa	60	12.762,65
Izan Fundazioa	54,5	7.797,41
Gizakia Fundazioa	52	7.706,37
ADSIS Fundazioa	50,5	18.830,39
Susterra Elkartea	44	6.868,55
IKT Eskola / Asociación para el fomento del uso saludable de las tecnologías (Pantallas amigas)	42	3.956,22
AGIPAD	36	7.540,39
BITAR-BASK	31	9.358,91
	Guztira	99.999,99

II. ERANSKINA

Eskatzailea	Ukatzeko arrazoia
Asociación de empresarios del recreativo de Bizkaia (ASERBI)	Ez du betetzen dirulaguntzaren oinarrien 3.c) artikuluan jasotakoa.